



**EBAZPENA, 2008KO IRAILAREN 25EKOA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEARENA, BIZKIAKO 1:5000 ESKALAKO HIRI-TOPONIMIAREN NORMALIZAZIOA ETA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAREN ARTEKO MAPA MUGAKIDEEN TRATAMENDU BATERATUA KONTRATATZEKO KONTRATUA BEHIN-BEHINEAN ESLEITZEKO DENA (K-29/2008 Espedientea).**

**GERTAKARIAK**

**LEHENENGOA-** Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2008ko ekainaren 16ko Ebazpenaren bidez, idazpuruan adierazitako kontratazioari buruzko K-29/2008 espedientea onartu zen, esleipen prozedura irekia erabiliz.

**BIGARRENA.-** Lizitazio hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 125 zenbakiarekin, 2008ko uztailaren 2an.

**HIRUGARRENA.-** Espediente horretarako Kultura Saileko Erregistroan honako enpresa hauek aurkeztu dituzte eskaintzak:

-UNIVERSIDAD DE DEUSTO.....2008/07/18.....sarrera  
ZB 576958.

**LAUGARRENA.-** 2008ko uztailaren 18an egindako bileran, Kontratazio Mahaiak aurkeztutako enpresen kontratatze gaitasuna aztertu eta gero, enpresek aurkezturiko dokumentazioa zuzena eta nahikoa zela ondorioztatu zuen, administrazio-klausula zehatzen agirian xedatutakoa betetzen duelako. Horrenbestez, proposamena aurkeztu zuten enpresa guztien lizitazioa ontzat eman zuen.

**BOSGARRENA.-** 2008ko uztailaren 28an eskaintza ekonomikoen irekierarako ekitaldi publikoa egin zen, prezioa zehatzteko modua orohareko prezioan zen eta ondoizoz ezin zen lizitazio prezioa bainoa gehiagokoa izan, ondoko eskeintzak jasoaz:

Enpresa	Proposamena (BEZ gabe)	BEZ	GUZTIRA
UNIVERSIDAD DE DEUSTO	115.400€	18.464€	133.864€

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENENGOA.-** Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak zerbitzu teknikoek enpresek aurkezturiko dokumentazio tekniko eta eskaintza aztertu eta baloratu dituzte, kontratua arautzen duten baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENGOA-** Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak egindako txostenetan kontratua UNIVERSIDAD DE DEUSTO enpresari esleitzea proposatzen da, oro har hartuta egokia delako administrazioaren interesei begira, ikuspegi tekniko batetik aztertuta.

**HIRUGARRENA.-** UNIVERSIDAD DE DEUSTO enpresak zuzen egiaztatu ditu bere gaitasuna eta kaudimena, bai eta eskatzen diren gainerako betekizun legezko eta formalak ere.



**LAUGARRENA.-** 2008ko maitzaren 27an kontratuari dagozkion obligazioeei aurre egiteko kreditua kontsignatu da 08 0 1 10 22 0000 1 238 99 47112 014 E aurrekontu partidan.

**BOSGARRENA.-** Urriaren 30eko 30/2007 Sektorre Publikoaren Kontratuen Legearen 144 eta 145 artikulua eta Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 7.2.i artikulua kontratazio alorreko hainbat funtzio esleitzen dizkirate.

Baldintza-agiriak, espedienteko dokumentazioa, aipatutako lege-arauak eta horiekin bat datozen gainerako xedapen orokorrak ikusi dira, eta kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren proposamen-txostena eta Kultura Sailaren Kontratazio Mahaiaren erabakiak. Ondorioz, hau

#### EBATZI DUT:

**LEHENGOA.-** UNIVERISDAD DE DEUSTO enpresari (IFZ B20449302) esleitzea behin-behinean Bizkiako 1:5000 eskalako hiri-toponimiaren normalizazioa eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mapa mugakideen tratamendu bateratua kontratatzeke kontratzeko kontratua (K-29/2008 espediente), enpresak egindako proposamen teknikoaren arabera eta 115.400€, eta 18.464€, BEZen kontzeptuan, esleipen kopuru guztia 133.864 € izanik, urteetaka horrela zatiturik:

- 2008. urtea (%40): 53.545,60 €
- 2009. urtea (%60): 80.318,40 €

**BIGARRENA.-** Behin-behineko esleipendunak 15 lan-eguneko epean, ebazpena kontratantearen profileen argitaratu eta ondorengo egunetik kontaktzen hasita, Baldintza berezien pleguko 10.4 atalean adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du, bertan dagoelarik Zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean izatea eta behin-betiko bermea jartzea Euskal Herriko Diruzaintza Orokorraren aurrean, Baldintza Berezien Pleguko Azaleko 18.2 puntuan adierazten denaren arabera, kasu honetan kopurua 5.770 € izanik. Era berean 390,71 euroko EHAako gastuak Vital Kutxako 2097.0178.16.0010961953 k/k .-an ordaintzea

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau publikatu kontratantearen profileen eta behin-behineko esleipendun proposatutakoari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 25a.

#### Hizkuntza Politikarako sailburuordea

  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
**PATXI BAZTERRIKA GALPARSORO**  
KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística